

aLEKA

TOLOSAKO UDAL ALDIZKARIA | 2023ko martxoa

02-06

**2019-2023
LEGEALDIA**

*Resumen de la legislatura
2019-2023*

07-09

**ANDRAGORA,
TOLOSALDEKO
EMAKUMEEN-ETXEA**

*Abre sus puertas, ANDRAGORA
Tolosaldeko Emakumeen Etxea*

10-13

AZKEN BERRIAK

Actualidad tolosarra

15

AGENDA

*Apunta estas
fechas*

**TOLOSARREN
BEHARREI
ERANTZUNEZ
LANEAN
4 URTEZ**





ETORKIZUNEN TOLOSA MARRAZTEKO KONPROMISOEI EUTSIZ ETA PROIEKTUAK AURRERA ERAMANEZ

Legealdia amaitzeko dagoen honetan, begirada atzera bota, eta gardentasun ariketa modura, azken urteen eta 2019-2023 Legealdirako Kudeaketa Planaren errepaso egin du Udal Gobernuak.

Azken 4 urteak konplexutasunez beteriko urteak izan dira. Lehenik eta behin, mundu osoa hankaz gora jarri zuen osasun-larrialdia, eta ondoren, aurrekaririk gabeko krisialdi ekonomikoa, Ukrainako inbasioaren ondorio, oraindik gaur, guztiok pairatzen ari garena.

Horrek, noski, eragin zuzena izan du Tolosako Udalaren jardunean. Testuinguru aldakor horretan, ezinbestekoa izan da udal baliabideak eraginkortasunez, zuzentze eta gardentasunez kudeatzea. Krisialdiak momentuan momentuko lehenetsiak aldatu badituzte ere, ez dute oztopatu 2019an aurkeztutako Legegintzaldirako Kudeaketa Plana ia bere osotasunean bete ahal izatea.

Tolosako udal gobernuak pertsonak izan ditu uneoro ardatz eta helburu; eta tolosar ororen beharrei erantzutea izan da lehenetsi nagusia, inor atzean ez uzteko. Horregatik, legealdiko lan-ardatz nagusiak izan dira gizarte-babesa bermatzea, jasangarritasunaren alde urratsak egitea eta garapen ekonomikoa sustatzea, Tolosa hobea eraikitzeko.

Apustu horiei irmoki helduta iritsi da ia legealdi amaiera eta udal gobernuak legealdi hasieran tolosarrei aurkeztutako Legealdirako Kudeaketa Planaren memoria argitaratu du, aurrera eramandako proiektuen berri herritarrei emateko.

Echando la vista atrás, la legislatura 2019-2023 ha sido una legislatura compleja, marcada por grandes crisis; una crisis sanitaria global en primer lugar y una crisis económica sin precedentes después.

No obstante, y a pesar de que todo ello ha repercutido directamente en la labor municipal, el equipo de gobierno ha mantenido firmes sus compromisos durante toda la legislatura, apostando por garantizar la protección social y por avanzar hacia un municipio más sostenible y económicamente más fuerte. A pesar de las dificultades, el equipo de gobierno ha logrado cumplir casi en su totalidad los proyectos previstos en el Plan de Gestión para la Legislatura 2019-2023 presentado hace cuatro años.

Así pues, como un último ejercicio de transparencia y de rendición de cuentas, el gobierno municipal ha presentado ante todas y todos los tolosarras la memoria del Plan de Legislatura para dar cuenta de las acciones y los proyectos llevados a cabo durante estos últimos cuatro años.



HERRITARRAK

El ámbito Ciudadanía ha recibido el 49.7% del presupuesto municipal de estos cuatro años, con un total de 78.137.160 euros.

HELBURU NAGUSIAK

- Tolosan bizi diren pertsonen gizarte-babesa bermatzea, eskaintako zerbitzuak indartzea eta etxebizitza-aukera berriak eskaintzea.
- Hiri-ekonomiaren sustapena, ekintzailetza bultzatuz eta merkataritza eta ostalaritza, larunbatetako merkata, azoka bereziak eta turismoa sustatuz.
- Herritartasuna eta hiri aktibo eta dinamikoa bultzatzea, parte-hartzearen, kulturearen, kirolaren eta aisialdiaren sustapenean bitartez.
- Tolosa berdinzeleago bat sustatzea, emakumeen ahalizuntzea bultzatuz herrian.



Gizarte-Zerbitzuak hobetzea eta sendotzea: Eguneko Arreta Zerbitzua, etxebizitza-laguntza, gau eta eguneko zerbitzu integrala Abegin.



Nuevas oportunidades de vivienda: ayudas para el pago del alquiler y rehabilitación de viviendas vacías para su puesta en alquiler; nuevas viviendas tasadas en Iurrumendi y San Cosme-San Damián y promoción de 111 viviendas protegidas en Amarotz.



Eliker Kalitatezko Elikadura Zentroa, sektorearen etorkizuneko garapena sustatzeko, azoka berezien bidelagun: ESNEKiren lehen edizioa 2022an.




Impulsando la economía urbana: ayudas al comercio, campañas de bonos, modernización de la feria semanal, Azoka Lagunak, nueva oficina de turismo, Plan de Empleo y feria del empleo.



Parte-hartzearen alorrean Tolosa aitzindari: Herritarren Batzarra; Tolosatzen Eskola Irekia; Gobernantza, Parte-Hartze eta Gardentasun ordenantza berria; Partaidetza Ataria; Haur, Nerabe eta Gazteen Plana.




Tolosa, kulturalmente viva: ayudas a agentes y asociaciones; nuevos proyectos: ToloFolk, Kultura Plazara.



Tolosa euskararen arnagune; Euskararen Aholku Kontseilua eta Ekintza Plana 2021-2024; Tolosaldepedia; Euskararen eskualdeko mahaia.



Mejora de las instalaciones deportivas: Usabal, Berazubi, Beotibar y Uzturpe. MUGIment kirol txartela e impulso al deporte femenino.



ANDRAGORA, Tolosaldeko Emakumeen Etxea sortu eta eraiki.



Trabajando a favor de la Igualdad: II. Protocolo contra la violencia machista, Observatorio de Igualdad de fiestas y su Plan de acción; fortalecimiento de la Escuela de empoderamiento.

LURRALDEA

Lurraldea alorrak udal aurrekontu osoaren %24,30 jaso du, guztira 33.319.293 € lau urteetan.

PRINCIPALES OBJETIVOS:

- Mantener el espacio público y los edificios municipales en las mejores condiciones.
- Mejorar la accesibilidad y movilidad del municipio, a favor de modelos de movilidad más sostenibles.
- Fomentar la regeneración urbana integrada.
- Realizar la planificación de los equipamientos municipales.
- Mejorar la sostenibilidad medioambiental del municipio.

> GARBIKETA ETA MANTENTZE LANAK



Espazio publikoa eta udal eraikinak egoera onean, txukun eta garbi mantentzeko lanak.

> MEJORAS EN MATERIA DE ACCESIBILIDAD Y MOVILIDAD



Renovación de diferentes calles y espacios con el peatón como protagonista. Estudios sobre aparcamiento.

> HIRI-BERRONERATZE INTEGRATUA, ESPAZIOAK BERRESKURATU ETA HOBETZEKO



San Esteban: definición del planeamiento.

Zumarditxikia: proyecto para recuperar el espacio.

Gorriti: proyectos para el inicio de obras.

Zezen plaza: renovación integral por fases.

> EQUIPAMIENTOS MUNICIPALES



Nuevo hospital público en Iurramendi (frente al parque de bomberos), nueva biblioteca en la Casa de Cultura y reordenación de los equipamientos culturales, nuevos equipamientos en Amarotz y Museo del montañismo en Arkaute.

> JASANGARRITASUNAREN ETA ENERGIA ERAGINKORTASUNAREN ALDEKO URRATSAK



Elosgi parkea zabaldu.

Ur depositoa Urkizuko antenan.

Hiribus zerbitzua autobus elektriko bidez.

Eguzki plakak Ferialekuan.


ANTOLAKUNTZA

Durante esta legislatura el presupuesto destinado a este ámbito ha ascendido a 35.634.425 € representando un 26% del total de presupuesto municipal.

HELBURU NAGUSIA:

Udalaren antolaketa garai berrietara egokitzea, herritarren eskaerei modu eraginkorragoan eta efizienteagoan erantzun ahal izateko, eskaintzen diren zerbitzuen kalitatea hobetu eta bermatzeko; hori guztia, kudeaketa ekonomiko-finantzario zorrotz baten bidez.

> UDAL ANTOLAKUNTZA BERRIA



Tres comisiones informativas y ámbitos de trabajo para una mayor eficiencia y eficacia en la gestión.

> UDALTZAINGOIA



Udaltzaingoaren Plan Zuzentzaile berria, udaltzaingo moderno, inplikatu eta hurbila sustatzeko; bide-segurtasuna ikastetxeekin koordinatuta; "Ikastetxeen karabana" egitasmoa.

> ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOIA



Pasos hacia la Administración electrónica, garantizando, la atención presencial. Nuevo "cajero" en UDATE para trámites municipales.

> UDATE



UDATEko herritarren arreta zerbitzuen sendotzea eta hobetzea: langile gehiago, aurretiazko hitzordua, beste erakunde batzuetako izapideak UDATEtik kudeatzea.

2019-2023 Legealdirako Kudeaketa Planaren memoria osorik ikusgai udal webgunean



www.tolosa.eus

ANDRAGORA, TOLOSALDEKO EMAKUMEEN ETXEA



TOLOSALDEKO EMAKUMEEN ETXEA ERAIKITZEKO IBILBIDEA

2018 | Lehen partaidetza prozesua. Primer proceso participativo.

Emakumeen etxearen izaera zehaztea zuen helburu, eta 104 emakumek hartu zuten parte, hiru taldetan antolatuta: Lantalde politiko teknikoa, Talde Eragilea eta Emakumeen Gune Zabala. Bertan zehaztu ziren Tolosaldeko Emakumeen Etxearen ezaugarri nagusiak. Etxearen aurreproiektua aurkeztu zen.

2021 | Bigarren partaidetza prozesua. Segundo proceso participativo.

Pandemia tarteko, 2021ean berrekin zen bigarren partaidetza saioa, non 76 emakumek parte hartu zuten. Emakumeen Etxea martxan jartzeko hurrengo urratsak adostu ziren, hala nola erabiltzaileen profila, espazioaren konfigurazioa, finantzazio partekatua, kudeaketa, funtzionamendua etab. Paraleloki, Tolosako Udalak obra proiektua garatu zuen.

2022 | Obren hasiera. Comienzo de las obras.

2022ko ekainean hasi ziren Tolosaldeko Emakumeen Etxea eraikitzeko lanak, Tolosako Inpernu kaleko 5,7 eta Emakumeon Plaza 1 zenbakieta-ko lokaletan. Espazioa erakargarriagoa egiteko, kanpoaldeko itxura ere eraberritu du Tolosako Udalak. 2022an ere lehiaketa bidez aukeratu izan zen etxearen irudia.

2023 | Ate irekiak. Puertas abiertas.

2023ko apirilaren 1ean ANDRAGORA, Tolosaldeko Emakumeen Etxea, emakumeentzako egoitza, eraldaketarako gune eta tresna, ezagutzera emateko ate irekien ekitaldia egingo da.

En total han participado más de 100 mujeres en la creación de ANDRAGORA. El nombre se decidió en el segundo proceso participativo y, a finales del 2022, a través de un concurso, se seleccionó el diseño del logotipo de Oihana Pelaez como imagen corporativa de Tolosaldeko Emakumeen Etxea.



TOLOSALDEKO EMAKUMEEN ETXEA

ANDRAGORA, TOLOSALDEKO EMAKUMEEN ETXEAREN HELBURUAK

ANDRAGORA, Tolosaldeko Emakumeen Etxea emakumeen ahalduz eta emakumeen parte-hartze soziopolitikoaren sustatzeko gunea izango da, sareak eraikitzeko, eraldaketa sozialerako eta indarkeria matxista ikuspegi integralerako lantzeko espazioa, alegia.



Zertarako Emakumeen Etxe bat Tolosaldean?

¿Para qué una casa de las mujeres en Tolosaldea?

- > Para ofrecer un espacio donde las mujeres se sientan escuchadas, seguras y protegidas.
- > Para compartir información y continuar aprendiendo sobre igualdad.
- > Para el empoderamiento colectivo e individual de las mujeres.
- > Para crear un punto de encuentro entre mujeres de distintas edades, orígenes, clases, ideologías...
- > Para poner los recursos público-comunitarios al servicio de la causa feminista.
- > Para la transformación social.

- 600 metro karratu
- Espazioaren eta inguruaren eraberritze integrala
- Ekipamendu berria
- Hainbat gune kontzientzia feminista sustatzeko: harrera gunea, egongela, areto nagusia, balioanitzeko gelak, bilera gelak, bulegoak



16 urtetik gorako emakumeei zuzendutako espazio segurua da, anitza, feminista, multikulturala, parte-hartzailea, inklusiboa, hezitzailea, irisgarria, herritarra, belaunaldi artekoa, dinamikoa, euskalduna, laikoa eta jasangarria; emakumeen eskura dagoena.

Berdintasuna eta kontzientzia feminista oinarri izanik, jarduerak, hitzaldiak, tailerrak, topaketak, batzarrak, jarduera ludikoak eta kulturalak, kirol jarduerak, kaleko ekintzak, ekimen solidarioak etab. antolatuko dira bertan.

ANDRAGORA Tolosaldeko Emakumeen Etxean eskainiko diren zerbitzuak:

Servicios que se ofrecerán:

- > **Tolosako Udaleko Berdintasun Saila.** Departamento de Igualdad del Ayuntamiento.
- > **Jabetze Eskola.** Escuela de Empoderamiento.
- > **Aholkularitza psikologikoa eta juridikoa.** Asesoramiento psicológico y jurídico.
- > **Ahalduntzeko dinamikak.** Dinámicas para fomentar el empoderamiento de la mujer.
- > **Jaien Berdintasun Behatokia.** Observatorio de Igualdad de Fiestas.

Estará abierta de lunes a viernes, mañana y tarde, y habrá una dinamizadora. También se podrá utilizar el espacio fuera de horario para actividades relacionadas con los principios y criterios definidos en los procesos de participación de ANDRAGORA, Tolosaldeko Emakumeen Etxea.

Ezagutu Emakumeen Etxea sortzeko eman diren urratsak hemen



www.tolosa.eus

AZKEN BERRIAK

Actualidad

ADINBERA, ADINEKOEN KALTEBERATASUNARI BURUZKO AZTERLANA

Martxan jarri da ADINBERA proiektua Tolosan bizi diren 65 urtetik gorako boluntarioekin. Biodonostia Osasun Ikerketa Institutuaren gidaritzapean (Biodonostia OII), Tolosako Muñoa Fundazioaren finantzaketarekin eta Tolosaldea ESiren eta Tolosako Udalaren laguntzarekin, helburu du adinekoen bizi-ohiturak, zailtasunak, egoera klinikoa, funtzionaltasuna, etab. aztertzea, adin aurreratuetan kalteberatasunaren ondorio kaltegarriak aurreikusi eta murriztu ahal izateko. Gainera, denboran zehar jarraipena ematea da asmoa eta erreferentziatzeko kohorte bihurtzeko zahartzearen eta adinekoen kalteberatasunaren ikerketan.

Se ha puesto en marcha el proyecto ADINBERA con personas voluntarias mayores de 65 años residentes en Tolosa, que tiene como objetivo analizar los hábitos de vida, dificultades, situación clínica, funcionalidad, etc. de las personas mayores, con el fin de poder prever y reducir los efectos adversos de la vulnerabilidad en edades avanzadas.

AHOLKU-SAREA ZERBITZU BERRIA MARTXAN TOLOSako FAMILIA GUNEAN

Eusko Jaurilaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak, Udalarekin lankidetzan, Aholku-Sarea izeneko zerbitzua eskainiko du aurrerantzean Tolosako Familia Gunean, Udal Musika Eskolaren eraikineko beheko solairuan, alegia.

Sare honen helburua da kalteberatasun-egoeran dauden etorkinei zein etorkinen gizarteratze prozesuetan lan egiten duten administrazio publikoetako eta hirugarren sektoreko erakundee-



tako profesionali atzeritartasunaren alorreko aholkularitza juridikoa ematea, pertsona migratzaileak beren egoera erregularizatu eta lan-merkatuan sartu ahal izateko.

El nuevo servicio Aholku-Sarea para el asesoramiento jurídico de personas migrantes puesto en marcha en el espacio Familia Gunea de Tolosa tiene como objetivo ayudar a las personas migrantes a regularizar su situación para lograr así acceso al mercado laboral.

BERDINTASUNAREN ALDE AURRERAPAUZO GARRANTZITSUAK TOLOSAN

Tolosako Udalak aurrerapauso garrantzitsuak eman ditu azken urteotan berdintasunaren alorrean. Zentzu horretan, amaitu berri du Indarkeriaren aurkako II. Protokoloa emakumeei eta beste biktima batzuei eskainitako arreta hobetzen jarraitzeko.

Halaber, legealdi honetan, berdintasunaren alde lanean jarraitzeko hainbat tresna sendotu dira, hala nola, Tolosako ikastetxeetako hezkuntza-komunitate osoari (ikasleak, irakasleak, orientatzaileak, gurasoak eta abar) zuzendutako hezkidetzaproiektua.

Gainera, Hezkidetzeta Mahaia osatu da, indarkeria matxistaren aurkako borrokan urratsak egiten jarraitzeko herriko ikastetxeekin eta eragileekin elkarlanean,



eta Berdintasun Kontseilua ere sortu da. Horrez gain, Jabetze Eskola sendotu eta egonkortu da, Jai Berdinzaleen Aldeko Ekintza plana garatu da eta udal politika guztietan zeharkakotasunez landu da genero ikuspegia, politika publikoen diseinuan eta garapenean ikuspegi feminista barneratzeko: Mugikortasun Planean, Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean edota Partaidetza, Gardentasun eta Gobernantza ordenantza berrian ere.

El Ayuntamiento ha dado pasos firmes a favor de la igualdad en esta legislatura: se ha elaborado el II. Protocolo contra la Violencia Machista, se ha consolidado la Escuela de Empoderamiento, se ha creado un nuevo plan de acción para unas fiestas igualitarias y se ha incorporado la perspectiva de género de forma transversal en todas las políticas municipales.

“NON BIZI NAIZ” PROIEKTUA, GAZTEEN ETA INSTITUZIOEN ARTEKO ELKAR EZAGUTZA SUSTATZEKO

Tolosako Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak martxan jarri dute “Non bizi naiz” proiektua Tolosako ikastetxeekin elkarlanean, euskal erakundeak gazteen artean ezagutzera emateko eta instituzioak gazteengana gerturatzeko. Horretarako, 7 ataletan banatuta dagoen unitate didaktikoa landu da, eta herriko 3 ikastetxeetako batxilergoko ikasleek taldetan banatuta proiektu bat landuko dute, datozen asteetan udal eta foru ordezkariet aurkezteko.

Proiektua Tolosatzen Eskola Irekiaren elkar ezagutzaren eta “instituzioak ezagutzen” lan lerroen baitan kokatzen da eta lotura zuzena du Tolosako Udaleko Gazteria saileko ildo estrategikoekin, garatu berri den Haur, Nerabe eta Gazteen Planean jasotako helburu eta lan ildo nagusietako bat baita herritartasun aktiboa eta gazteen parte hartzea sustatzea.



Con el objetivo de acercar las instituciones a las personas jóvenes, se ha puesto en marcha el proyecto NON BIZI NAIZ junto a los centros escolares de la localidad para que alumnos y alumnas de Tolosa trabajen propuestas que presentar a la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de Tolosa.

ABIAN DA TOLOSAKO MERKATARIEI ZUZENDUTAKO AHOLKULARITZA ETA FORMAZIO PROGRAMA BERRIA

Además de la puesta en marcha de un programa de asesoramiento y formación dirigido a comerciantes para mejorar la singularidad y competitividad de los comercios de Tolosa, se analizarán los datos de los contadores de personas ubicados en diferentes puntos de la localidad, para conocer el perfil, flujo comercial, frecuencia de visitas y/o compras de las personas que se acercan a Tolosa. Esta información será de gran utilidad para la adopción de medidas favorables a los comercios o para la puesta en marcha de nuevos proyectos.



Merkataritza ehunak garrantzia handia eta berezia du Tolosan, horregatik, tokiko merkataritza indarberritzeko eta sustatzeko asmoz, Udalak Tolosako saltokien bereiztasuna eta lehiakortasuna hobetzeko programa berria abiarazi du aurten Gipuzkoako Merkataritza Federazioarekin eta Tolosa&Co elkartearekin elkarlanean. Helburua da denden profesionalizazio maila handitzea saltokiek

euren kudeaketan aurrerapausoak eman ditzaten.

Horretarako, banakako aholkularitza eskainiko da hainbat arlotan: komunikazioa, ecommerce, negozioen kudeaketa eta formazioa erakuslelhoak diseinatzeko eta apaintzeko tekniken inguruan, bezeroekiko harreman eredu berriei buruzko saioak edota estres profesionalaren kudeaketarako saioak.

ERREKA GARBIKETA ETA ARABA ETORBIDEKO ZUBIAREN AZPIAN SAREA

Limpieza del río y nueva red bajo el puente de la avenida de Alava

Uraren Mundu Egunaren harira, erreka garbitzeko lanak egin ditu Tolosako Udalak herriko hiru ikastetxeekin elkarlanean, eta Araba etorbideko zubiaren azpialdean 211 metro saretu dira zaborra errekarara jausi ez dadin.



HAUR JOLASTOKIAK BERRITZEN

Mejoras en los parques infantiles



Iaz San Esteban auzoko parkea, Plaza Berrikoa edota Amaiurrekoa berritu zituen Udalak, eta lanek jarraipena izango dute. Esaterako, urte hasieran ireki da Zuloaga auzoko jolastokia zoru berrituekin eta egurrezko jolas berrieekin.

27 JARDUERA EMOZIOAK LANTZEKO, TOLOSATZEN ESKOLA IREKIAREN BAITAN

Tolosatzen Eskola Irekiak 2019ko abenduan ekin zion bere bideari eta proiektuak helburu du, herritarrei espazioa eskaintzea, elkarlana eta lankidetzaren oinarri hartuta, hausnartzeko eta gaitasun eta alor desberdinetan trebatzeko.

2023ko lehen sei hilabetean emozioen lanketa eta zaintza oinarri duten 27 jardueraren antolatua dira, hala nola, autozaintza programa, gurasoei zuzenduriko atal berezia eta noski, momentuan mo-

mentuko erronken (euskararen egoera, trantsizio ekologikoa, errefuxiatuak...) inguruan hausnartzeko jardunaldiak.

En el curso pasado de la Escuela Abierta Tolosatzen se llevaron a cabo 33 actividades y participaron 1.150 tolosarras de todas las edades. En el nuevo curso iniciado se han organizado 27 actividades para seguir trabajando las emociones, entre otras cuestiones.

Egitarau osoa eskuragarri dago Hemen:



ZEZEN-PLAZA ERABERRITZEKO LANAK AMAITUTA

Terminadas las obras de renovación de la plaza de toros



Obrak faseka egin dira eta amaituta daude aurreikusitako lan guztiak. Hiru irteera berri sortu dira, palkoen egitura sendotu eta kanaloak guztiak aldatu dira. Tendiduko hormailak eraberritu dira eta hormigoizko hormailen oinarria inpermeabilizatu eta euri-urak biltzeko sistema eta ur-hustubideak ere ezarri dira, barandak egokitu eta margolanak gauzatzearekin batera. Goiko hormaila eta sarrera nagusiko eskailerak ere zaharberritu dira.



GORRITI PLAZAKO EREMUA ERA INTEGRALEAN ERABERRITZEKO LANAK HASITA

Comienzan las obras para la recuperación y mejora del ámbito de Gorriti

Oyarbideko eranskina eraisteko lanak hasita daude eremu osoa berreskuratu eta zaharberritzeko lehen urrats modura. Eraisteko lanekin batera, Enperadore kaleko horma estetikoki txukuntzeko obrak esleitu eta gauzatzeko dira eta ondorenean hasiko dira eremu osoan esku-hartzeko lanak. Helburua da eremua atsegina eta irisgarriagoa bilakatzea, atsedenerako eta asialdirako berdeguneekin eta ibai albotik igaroko den pasealeku berriarekin.

TOLOSAKO ESKULTURAK ZAHARBERRITZEKO LANAK



Faseka egingo dira eta lehen fasean Juan Loperen "Homenaje al baserritarra", Koldobika Jauregiren "Kantu ixila IX" eta Eduardo Chillidaren "Lizardiren leihoa" eskulturak zaharberrituko dira.

TRIBUNA

Alderdien iritzia



Jarrera eraikitzailea eta apustu estratēgikoak Tolosak aurrera egiten jarrai dezan.

Gobernantza eredu berrietan sinesten dugu, entzuketa ariketan, herri-tarrekin bat eginda lan egiteko. Legealdi honetan proiektu guztiak landu ditugu tolosarrekin elkarlanean, herritarren beharrei erantzuteko. Dagokigun arduratik, beharrezkoak diren apustuak eginez, erabakiak hartuz.

Ez dira geldirik geratzeko eta ideiarik gabe egoteko garaiak. Ezetzaren, inmo-bilismoaren eta populismoaren aurrean, gure apustua, tolosarrekin batera, Tolosa aurrera eramatea da. Ospitale publiko berriarekin, Amarotzeko alokairuko etxebizitza babestuekin, Zumarditxikia berreskuratzeko apustuarekin, azoka berezien sustapenerakin, beste hainbat proiektuekin batera; guztientzako Tolosa hobe bat helburu, horren aldeko apustu zintzoa egiten jarraituz.

Gure ustetan, hori baita bidea, eta hori da gure lan egiteko eredu. Tolosak aurrean dituen erronkei sendotasu-nez erantzun behar die, elkarlanetik, beharrezkoak diren apustu estratēgikoak eginez Tolosa hobetzen jarraitzeko.

“Escucha, participación y colaboración para mejorar Tolosa. Ese ha sido nuestro modelo de trabajo frente al 'NO por el NO' populista, el bloqueo o la confrontación. Creemos que esta es la vía para que Tolosa avance. Tolosa necesita apuestas estratégicas y decididas de cara al futuro; ese ha sido y es nuestro compromiso”



Legealdi amaieran balorazioak egin ohi dira, beraz, hona gurea:

EAJ-PSE gobernu akordioak hitzartutako proiektu estratēgikoak ezerezean gelditu dira. Inguruko herritarrei aparkalekua bermatuta Zumardi Txikia berreskuratzeko zen lehen proiektua. Aurkeztutako proiektuak ordea, ez du babes sozial zabalik izan eta aparkalekuen gaiari berandu eta partzialki heldu diote. Rondilla kalearen goitik beherako erreforma iragarri zuten, baina ez dago mugimendurik. San Esteban auzoaren etorkizuneko garapeneren planifikazioa zehaztea eta onartzea estratēgikoa bazen ere, hauteskondeetarako 6 hilabeteren faltan hasi dituzte harremanak auzokideekin. Alokairu etxebizitza parkea handitzea zuten asmo, baina ikuspegi sozialeko etxebizitza kopurua ez da handitu. Trantsizio energetikoa eta ingurugiroaren zaintza estratēgikoa bazen ere, eta klima aldaketaren eraginei aurre egiteko 2019ko azaroan onartu genuen mozioan konpromiso zehatz batzuk hartu bagenituen ere, apenas aurreratu dugu auzi honetan. Proiektu izarra ospitale publikoa zen, eta estratēgikoki banatutako ke pilula informatiboak bakarrik jaso ditugu.

Tolosarrok erronka atzeraezinak ditugu. Gu prest gaude, herritarrekin lankidetzan, erronka garrantzitsu hauei ekiteko.



Legealdia amaitzen ari da eta balantzearen garaia da. Legealdi zaila izan da: Covidak eta orain Ukrainako gerrak eragindako krisiak asko baldintzatu gaituzte. Covidak hankaz gora jarri zituen gure bizitzak, baina baita udal-administrazioak ere.

A pesar de todo, los proyectos han salido adelante: Laskorain kalea, Paper kalea, Ambulatoria, rotondas de Arramele y San Francisco, hierba artificial de Usabal, ayudas para el alquiler de viviendas para jóvenes, ayuda para rehabilitar viviendas cerradas, equipamientos en Amaroz, etc.

Otros proyectos, más complejos, serán realidad los próximos meses: Emakumeen Etxea; el espacio la Plaza Gorriti / Emperador / Sta María; el apeadero; la tercera fase de Usabal; Zumardi Txiki, siempre que se encuentre una alternativa al parking actual, viviendas en Yurreamendi y San Cosme.

Lau urte hauetan zerbitzari publikoa izateak merezi izan du. Esperientzia honen ondoren, nire onena tolosar guztien zerbitzura jartzeko prestatuago sentitzen naiz. Apaltasun osoz, ziur nago tolosar guztien zerbitzura lan ona egin dezakedala. Hau dela eta hurrengo udal-hauteskondeetara aurkeztuko naiz. Beti ere helburu honekin: tolosar guztion bizi-kalitatea hobetzen laguntzea.

AGENDA

Agenda osoa ikusgai: agenda.tolosa.eus

APIRILAK 21 Ez naiz Dublinean inoiz egon (Antzerkia) 20:00etan, Leidorren

APIRILAK 28 genEROrantz (Dantza) 20:00etan, Leidorren

MAIATZAK 12 Musikene Big Band (Musika) 20:00etan, Leidorren

MAIATZAK 19 Los días ajenos de Bob Pop (Antzerkia) 20:00etan, Leidorren

MAIATZAK 26 Post datarik gabeko gutunak (Antzerkia) 20:00etan, Leidorren

EKAINAK 10 Dantza tallerreko emanaldiak (Dantza) 12:00etan eta 18:00etan, Leidorren

EKAINAK 16 Kultur Etxeko antzerki tallerreko emanaldia (Antzerkia) 20:00etan, Leidorren

Sarrerak:
Leidorreko leihatilan
— www.tolosa.eus/kultura
— tickets.kutxabank.es

Editorea: Tolosako Udala
Diseinu eta maketazioa: Dosges
Inprimaketa: Gráficas Ibarra
D.L.: SS-340/06

Kontsultatu
Alearen edukia
zeinu hizkuntzan:

Consulta el contenido
de Aleka en
lenguaje de signos:

HEMEN! >




TOLOSAKO HERRITARREN BATZARRA



Joan den abenduaren 17an amaitu zen Tolosan zein lurralde mailan aitzindaria izan den parte-hartze prozesu hau.

Zozketa zibikoz aukeratutako 32 lagunek osatutako taldea, bost larunbatetan banatuta, 40 orduz aritu dira ongizatearen eta osasun emozionalaren inguruan deliberatzen eta horien inguruko 14 gomendio aurkeztu dizkio Tolosako Udalari. Udalak, banaka-banaka erantzun ditu guztiak.

Ezagutu nahi tolosarrek egindako proposamenak eta horiei Udalak emandako erantzuna?



> Tolosako Herritarren Batzarraren laburpen txostena eta prozesuaren laburpen bideoa ikusgai hemen

